

• E EUORÉGIÓN EUROESKUALDEA EUORRREGIÓN

NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA



**Euroeskualdeko
Unibertsitate
Lankidetzarako
Estrategia**

Aurkibidea

1

Sarrera 4

2

Unibertsitate Lankidetzarako
Estrategiaren eskema 8

3

Jarduera-lerroak eta ekintzak 10

3.1

1. jarduera-lerroa 12
Saretzea. Euroeskualdeko unibertsitate
lankidetzarako funtsezko eragileak artikulatzea.

3.2

2. jarduera-lerroa 16
Euroeskualdeko unibertsitate-komunitateak
lankidetzan garatzeko prestakuntza eta
ikerketa proiektu berriak sortzea.

3.3

3. jarduera-lerroa 18
Ikasleen eta irakasleen Euroeskualdeko
mugikortasuna sustatzea, hurbileko
naziortekotzeari balioa emanez.

4

Adierazleak 20

5

Eranskinak 22

1 | Sarrera



Jarraian aurkezten den estrategiaren helburua Euroeskualdeko unibertsitate-sistemako eragileen artean dauden osagarritasunei etekina ateratzeko jarraitu beharreko bidea zehaztea da, era berean, Euroeskualdea unibertsitate-lankidetzarako aukera-gune gisa ikusaraziz.

Estrategia modu partekatuan eraiki da, esparru honetako eragileek Euroeskualdeko unibertsitate-lankidetzaren potentzialtasunaren eta beharren inguruan egindako ekarpenei esker. Hain zuzen, galdetegi espezifiko eta elkarrizketa pertsonalen bidez, giltzarri diren eragileek beren ikuspegia eman eta Euroeskualdeko unibertsitate-lankidetzan aurrera egiteko epe laburreko zein ertaineko lehentasunak jakinarazi dituzte.

Nolanahi ere, *Unibertsitateen Lankidetzarako Estrategiak* oinarritzko printzipio hau du abiapuntu: Euroeskualde esparruako goi-mailako hezkuntza osatzen duten erakundeek garapen-planetan ez eragitea eta unibertsitateen autonomia errespetatzea.

Pandemiak eragindako egungo egoerak agerian utzi ditu erakundeek arteko interdependentziak, lankidetzaren balioa indartuz, eta beraz, elkarlan hori hurbileko unibertsitate-harremanen hauspo izan daiteke. Izan ere, aipatutako galdetegietan jasotako erantzunetan «tokikoari» garrantzi handiagoa ematen dioten iritziak jaso dira, hurbileko lurraldea lankidetzaren ekimenak hedatzeko eremu natural gisa ikusteko modu berri bat adierazten dutenak.

Lankidetzari esker, mugarik gabeko prestakuntza eta ikerketa sustatuko dira Euroeskualdeko unibertsitate-eremuan eta ikasle, irakasle zein ikertzaileen mugikortasuna bultzatuko da. Hala ere, horretarako aurretiazko baldintza bat dago: esku hartzen duten eragileen eta haien eskaintzen, proiektuen eta gaitasunen arteko ezagutza egokia bermatzea. Ezagutza horretatik soilik sortu ahal izango da asmo handiko lankidetzadynamika bat, eragile gehiago inplikatu dituen eta, horrela, irismen handiagoko lankidetzak sortuko dituen.

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea LLETek funtsezko eginkizuna hartzen du bere gain Estrategia honetan, Euroeskualdeko unibertsitate-lankidetzaren bultzatu, katalizatu eta errazten duen erakunde den aldetik; jarduera komunei euskarria emango dien arreta, finantzaketa eta laguntza-mekanismoak antolatu, eragileak saretu eta lankidetzaren proiektu eta ekimenak ikusaraziko ditu.



NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRA
AKITANIA-BERRIA • EUSKADI • NAVARRA
NUEVA AQUITAÑA • EUSKADI • NAVARRA



3
Lurralde
Akitania-Berria
Euskadi • Nafarroa



3
Hizkuntza
Euskara • Gaztelera • Frantsesa



11
Unibertsitate
8 Publiko • 3 Pribatu



13
Goi mailako
hezkuntza zentro
8 Publiko • 5 Pribatu



250 305
Ikasle

● Publiko ● Pribatu



Akitania-Berria

Bordele

- 1 EBABX • Arte Ederretako Goi mailako Eskola
- 2 ENSAM • Arte eta Lanbideen Eskola Nazionala
- 3 ENSAP • Arkitektura eta Paisaia Eskola Nazionala
- 4 Zientzia Politikoen Institutua
- 5 INP • Institutu Politekniko Nazionala
- 6 Kedge Business School
- 7 Zientzia Agronomikoen Eskola Nazionala
- 8 Bordeleko Unibertsitatea
- 9 Bordeleko Montaigne Unibertsitatea

Bidarte

- 10 ESTIA • Industria Teknologia Aplikatuen Goi Eskola

La Rochelle

- 11 EIGSI • Industria Sistemen Ingeniaritzako Ingeniarien Eskola
- 12 Excelia Taldea
- 13 La Rochelleko Unibertsitatea

Limoges

- 14 ENSCI • Zeramika Industrialeko Eskola Nazionala
- 15 Informatikako Ingeniaritzako Institutua
- 16 Limogesko Unibertsitatea

Paue / Baiona

- 17 Pau et Pays de l'Adour Unibertsitatea • Paueko Kanpusa • Baionako Kanpusa
- 6 Kedge Business School • Baionako Kampusa

Poitiers

- 18 Poitierseko Unibertsitatea
- 19 ISAE-ENSMA • Mekanika eta Aeroteknika Eskola Nazionala



Euskadi

Bilbo

- 20 Deustuko Unibertsitatea
- 21 Euskal Herriko Unibertsitatea • Leioako Kampusa

Donostia

- 20 Deustuko Unibertsitatea • Donostiako Kampusa
- 21 Euskal Herriko Unibertsitatea • Donostiako Kampusa
- 22 TECNUN • Ingeniaritza Eskola • Donostiako Kampusa

Arrasate

- 23 Mondragon Unibertsitatea

Gasteiz


- 21 Euskal Herriko Unibertsitatea • Gasteizko Kampusa



Nafarroa

Iruña

- 24 Nafarroako Unibertsitatea
- 25 Nafarroako Unibertsitate Publikoa



2 Unibertsitate Lankidetzarako Estrategiaren eskema



SARETU

1. jarduera-lerroa

Saretea. Euroeskualdeko unibertsitate lankidetzarako funtsezko eragileak artikulatzea.

- Unibertsitateak
- Lurraldeak
- Beste eragile batzuk (enpresak eta hezkuntzako eragileak)



1.1 Ekintza

Gidaritza Batzorde bat osatzea..

1.2 Ekintza

Euroeskualdeko unibertsitateak biltzeko foroa.

1.3 Ekintza

Unibertsitate-sarea etengabe mantentzeko programa.



IKERKETA & PRESTAKUNTZA

2. jarduera-lerroa

Euroeskualdeko unibertsitate-komunitateak lankidetzan garatzeko prestakuntza eta ikerketa proiektu berriak sortzea.

- Ikerketa/prestakuntza arloak
- Proiektu komunak
- Titulazio bikoitzak/hirukoitzak
- Tutorekideak



2.1 Ekintza

Baterako prestakuntza-eskaintza handitzea.

2.2 Ekintza

Deialdien bidez, Euroeskualde mailako ikerketa taldeak/sareak sortzen laguntzea, ildo eta proiektu zehatzen inguruan.



MUGIKORTASUNA

3. jarduera-lerroa:


Ikasleen eta irakasleen Euroeskualdeko mugikortasuna sustatzea, hurbileko nazioartekotzeari balioa emanez.

- Ikasleak
- Irakasle, doktoregai eta ikertzaileak



3.1 Ekintza

Euroeskualdeko beka indartzea eta ikusgarritasun handiagoa ematea, Euroeskualdearen barruan ikasleen, irakasleen eta ikertzaileen nazioarteko mugikortasunari laguntzeko tresna gisa.



3

Jarduera-lerroak eta ekintzak



HELBURUAK

- Elkar hobeto ezagutzea.
- Lankidetzaz-aurerak ikusaraztea.
- Jardunbide egokiak zabaltzea.
- Euroeskualdeko espazioari nortasuna ematea.
- Prestakuntza-proiektuak lankidetzaz sortzea.
- Titulazio bikoitzen eskaera bultzatzea.
- Ikerketa lankidetzaz bultzatzea.
- Ikasleen Euroeskualdeko mugikortasuna gehiago sustatzea.
- Irakasle, doktoregai eta ikertzaileen mugikortasuna gehiago sustatzea.



JARDUERA-LERROAK



1. jarduera-lerroa

Saretzea. Euroeskualdeko unibertsitate lankidetzarako funtsezko eragileak artikulatzea.



2. jarduera-lerroa

Euroeskualdeko unibertsitate-komunitateak lankidetzaz garatzeko prestakuntza eta ikerketa-proiektu berriak sortzea.



3. jarduera-lerroa

Ikasleen eta irakasleen Euroeskualdeko mugikortasuna sustatzea, hurbileko nazioartekotzeari balioa emanez.



EKINTZAK

1.1 Ekintza

Gidaritza Batzorde bat osatzea.

1.2 Ekintza

Euroeskualdeko unibertsitateak biltzeko foroak.

1.2 Ekintza

Unibertsitate-sarea etengabe mantentzeko sarea.

2.1 Ekintza

Baterako prestakuntza-eskaintza handitzea.

2.2 Ekintza

Deialdien bidez, Euroeskualde mailako ikerketa taldeak/sareak sortzen laguntzea, ildo eta proiektu zehatzen inguruan.

3.1 Ekintza

Euroeskualdeko beka indartzea eta ikusgarritasun handiagoa ematea, Euroeskualdearen barruan ikasleen, irakasleen eta ikertzaileen nazioarteko mugikortasunari laguntzeko tresna gisa.

3.1

1. jarduera-lerroa

Saretzea. Euroeskualdeko unibertsitate lankidetzarako funtsezko eragileak artikulatzea.

Inkestetan eta elkarrizketetan jasotako informazioa aztertuta, argi eta garbi ikusten da unibertsitate-lankidetzarako ahulgune nagusia Euroeskualdeko unibertsitate-esparrua osatzen duten eragileek elkar ez ezagutzea dela. Inplikaturako eragile ia guztiek onartzen eta partekatzen duten gabezia izanik, hori konpontzeko interesa ere aho batekoa da. Logikoa denez, elkar ezagutzea funtsezkoa da lankidetz-aukerak identifikatzeko.

Era berean, elkarrizketatutako pertsonak bat datoz Euroeskualdeak arlo horretan rol garrantzitsua izan behar duela adieraztean, harreman-sare zabala eta iraunkorra sortu eta sendotzeko, inplikaturako eragileen arteko hurbilketa ahalbidetuko duten ekimenak bultzatuz.

Hori guztia kontuan izanik, lerro honetako helburu nagusia beren burua ezagutarazteko, esperientzia eta ezagutza-trukea errazteko zein elkarlanerako lotura eta proiektu berriak sortzeko tresnak Euroeskualdeko eragileen/aktoreen eskura jartzea da.

- Aurreko gogoetetan oinarrituta eta Euroeskualdearen misioa bera kontuan hartuta, honako hau lortu nahi da:
- **Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako Unibertsitateen arteko Euroeskualde-inguruari balioa ematea**, nortasun komuna sustatzea eta guztiek «aitortutako» Euroeskualde-eremua eraikitzea.
 - **Lurralde gisa ospea lortzea:** Euroeskualdea Europako unibertsitate-eremuko eragile identifikagarri gisa kokatzea, egun abian diren eta etorkizunean landuko diren lankidetz-proiektuak ikusaraziz.
 - **Ezagutza sortzen eta zabaltzen laguntzea**, mugaz gaindiko eremuan lortutako emaitzak argitaratuz eta zabalduz (tesiak, kasu arrakastatsuak, argitalpen zientifikoak, etab.)
 - Euroeskualdeko unibertsitateek Europako Programetarako hautagaitzetan duten **baterako partaidetza handitzen laguntzea**.



Horretarako beharrezkoa da:

- **Euroeskualdeak ekintzak sustatu eta gidatzea.** Horrez gain, unibertsitateko eragileen lan-mahai misto bat sortzea planteatzen da, Euroeskualdeari ekintzen jarraipenean laguntzeko eta sektoreko ezagutza aditunik abiatuta, jarduera-proposamen berriak aurkezteko.
- Etorkizuneko sareko kideak **fisikoki elkartzeko eta ezagutzeko lekua/unea gaitzea.**
- **Euroeskualdeko ekintzei labela jartzea** (sariak/aintzatespenak sortuz).
- Lankidetzaren aurrerapen-mailari eta eskuratutako lorpenei buruzko **informazioa sistematikoki hedatzea** eta hedapenaren irismena zabalduko duten beste eragile/bideratzaile batzuen lankidetz-a lortzea.
- **Kide berriak** (teknologia-zentroak, enpresak, etab.) **pixkanaka sartzea**, sarea handitu eta sendotzeko.

Honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- Inplikaturako eragileak hurbileko nazioartekotzearen eta estrategia partekatuak hartzearen aldekoak badira ere, zaila da lehen etapa batean **eragile ezberdinen interesak** eta haien nazioartekotzeko «une» desberdinak **bateratzea**.
- Era berean, **eragileei** Euroeskualdeko lankidetz-espazio baten sorreran parte hartzearen **abantailak jakinaraztea** beharrezkoa da (batez ere berriki sartutako lurraldeei), eta baita Europako Unibertsitateen proiektuen agertokian ere.
- Lankidetz-a jardueretarako denbora eta finantzaketa ezak atzeratu egin dezake lehen emaitzak (epe ertain/luzean) bistaratzea eta beraz, lankidetz-eremu bat sortzeko egiten diren **ekintzek denboran iraun behar dute, ebaluatu** egin behar dira eta birbideratu, hala badagokio.

1.1 Ekintza

Gidaritza Batzorde bat osatzea.

Lehenengo urrats gisa, hiru lurraldeen ordezkari izango duen *Gidaritza Batzorde* bat eratzea proposatzen da, estrategia hau prestatzen jardun duen batzordea bera oinarritzat hartuta. Aditu/lurraldeko ikuspegia egokia da jorratu nahi diren ekintza guztietarako, eta gainera, alderdiek lankidetzaren alde duten konpromisoa adierazten du.

Horrenbestez, lurralde bakoitzeko erakunde-ordezkariek zein Euroeskualdeak bere taldearen barruan izendatutako pertsonak osatutako Gidaritza Batzorde bat eratzea proposatzen da. Aditu-batzorde horrek hainbat eginkizun izango ditu:

- Euroeskualdeak unibertsitate-lankidetzaren arloan proposatutako jardueren emaitzak optimizatzeko ezagutza ematea.
- Aurreikusitako ekintzen jarraipena egitea.
- Ekintza berriak proposatzea.
- Lurralde bakoitzean, sortutako ekimenen enbaxadore izatea.

1.2 Ekintza

Euroeskualdeko unibertsitateak biltzeko foroa.

Euroeskualdeko unibertsitate-lankidetz-a osatzen duten eragileei elkartzeko gune bat proposatu nahi zaie, denboran iraunkortasuna izango duena (bi urtero bilduko da), eta eragileek beren burua ezagutaraztea helburu nagusi izango duena, lankidetz-esparru berriak sortzeko lehen urrats gisa. Foroa hiru lurraldeen arteko topagune izango da, non eragileek beren orientabide estrategikoak eta lehentasunak bateratuko dituzten, eta unibertsitateko eragileek beren prestakuntza-eskaintza, espezialitateak, ikerketarako potentziala, baliabideak, dagoeneko egindako lankidetz-proiektuak eta abar aurkeztuko dituzten.

Foroaren helburu nagusia - lankidetz-a sustatzeko, alderdien ezagutza bideratzea – bere horretan mantenduko da hurrengo edizioetarako. Hala ere, eta helburu hori alde batera utzi gabe, denborak aurrera inplikaturako eragileen harremanen aurrerapen-maila ere garatuko dela kontuan izanik, agente berriak (zentro teknologikoak, enpresak, etab.) pixkanaka sartzea planteatzen da.

Protagonistak

Euroeskualdeko unibertsitate-sareko kide guztiak behar bezala ordezkaturik egongo diren foro bat eratzea da helburua. Horretarako, hiru ikuspegi hauek hartu behar dira kontuan:

- **1. taldea → Eremu instituzionala/politikoa**
Gobernuak
- **2. taldea → Eremu estrategikoa/gobernantza**
Errektoreak eta errektoreordeak
- **3. taldea → Eremu operatiboa**
Lankidetz-a-proiektuen kudeatzaileak, unibertsitateetako nazioartekotze-arduradunak, ikerketa-taldeetako arduradunak...

Foroak ordezkari bakoitzak bere lekua izateko konfiguraturik egon behar du. Era berean, komenigarritzat jotzen da Europako aditu edota ordezkariaren bat foroan parte hartzera gonbidatzea, bilguneari erakargarritasun, ikusgarritasun eta proiektio handiagoa emateko.



Gaitegi “bizia” eta estrategiarekin lerrokatua

Eragileen ezagutzan sakontzeko, egindako bideari balioa emateko eta lankidetzak-ekintza berriak eztabaidatzeko topagune izango dira foroak. Estrategiak aurrera egin ahala, foro bakoitzak behar desberdinei erantzun beharko die, alderdien artean interes handiena sortzen duten gaiak helduz.

Beraz, gaiak lankidetzaren aurrerapen-mailara doituko dira, edukiak aipaturiko ikuspegi hirukoitz horretara egokituz, hiru segmentuak behar bezala ordezkatuta egon daitezzen.

Jardunaldiaren ezaugarriak

- **Maiztasuna**
Bi urtero “jardunaldi” bat egitea proposatzen da, egoitza txandakatuz.
- **Formatua**
Hitzaldiak eta mahai-inguruak.
- **Bitartekoak**
Jardunaldia (kide baimenduei) denbora errealean hedatzeko ikus-entzunezko estaldura eta ondoren bideo laburrak editatzeko aukera.

1.3 Ekintza
Unibertsitate-sarea etengabe mantentzeko programa.

Euroeskualdeak «saretzeko» ekimenaren sustatzaile izan beharko luke denborak aurrera egin ahala. Garrantzitsua da lankidetzak-espirtua bizirik mantendu eta mugaz gaindiko lankidetzak sustatzeko elkartrukerako guneak prestatzea. Hori dela eta, bi urtero antolatutako jardunalditik eta Euroeskualdeak urtean zehar hainbat ekintzen bidez egin dezakeen zabalkundetik haratago, honako ekintza hauek garatzea proposatzen da:

- **Urtean zehar, egindako jarduerak eta lorpenak argitaratzea.**
Lankidetzak-esparruetatik sortutako ekintzak hedapen, sentsibilizazio eta motibaziorako elementu izan daitezke, beste eragile batzuk parte hartzera bultzatuz. Horretan arrakasta izateko, esparru honetan egiten diren ekintzak baliagarria den informazioa zabaltzeko premisarekin egin behar dira beti, (ikasleen mugikortasuna, ikertzaileen trukeak, titulazio berriak, Euroeskualdeko talde bat Europako proiektuetara aurkeztea, etab.), eta horrek lankidetzaren esparruan gertatzen diren berrikuntzei erne egotera behartzen du.
Emaitzetara oso bideratuta dagoen komunikazio mota horrek ekintzen hedapenerako euskarri egokienak bilatu beharko ditu. Hasieran inpaktu txikiagoa izango du (eragileak lankidetzaren lehen etapetan daudelako) eta komunikazioa albiste gisa bideratu daiteke LLETen webgunean (flash informatiboa), jarraian, gainerako agenteek beren webguneetan edo erabiltzen dituzten beste komunikazio-euskarri batzuetan (sare sozialak, buletinak, estekak,...) partekatu dezaten.
Aurrerago, beste formatu bisualago batzuk ere azter daitezke, benetako testigantzak dituzten bideo laburrak, adibidez. Gainera, denboraren poderioz, gero eta eduki gehiago sortzen joango dela uste da, eta bildutako informazio hori bi urteroko jardunaldien elementu nagusia izan daiteke.



- **Aktoreen errekonozimendua.**
Sareko eragile nabarmenei eta horiek egindako lanari balioa ematea. Eragileen profil desberdinen arabera sariak/ aintzatespenak sortzea proposatzen da (mugaz gaindiko doktorego-tesi onenak, argitalpen zientifikoak, Sareko enbaxadoreak, etab.), bi urteko lanaldia «aintzatespen» bihurtzeko aukera emanez.
Ekintza horren bidez, bi helburu lortu nahi dira: barnera begira, espazio komun bateko kide izatea eta talde-identitate bat sortzea, eta kanpora begira, Euroeskualdeko arrakastak proiektatzea, marka komun bat sortuz (Euroeskualde labela).
- **Unibertsitateko aktoreei buruzko informazio eta lankidetzak-aukeren gordailua.**
Lankidetzan aurrera egin ondoren, interesgarria izan liteke online «biltzeko» tresna bat egileen eskura jartzea, tresna egileek eurek elikatu eta sustatu dezaten. Plataforma horretan, proiektuak erregistratu, proiektu jakinetarako laguntzaileak bilatu edo interes komuneko gaiei buruzko kontsultak egin litezke.



3.2

2. jarduera-lerroa

Euroeskualdeko unibertsitate-komunitateak lankidetzan garatzeko prestakuntza eta ikerketa proiektu berriak sortzea.

2.1 Ekintza

Baterako prestakuntza-eskaintza handitzea.

Euroeskualdeko estrategia lantzerakoan identifikatutako lankidetzaproiektuen artean daude Euroeskualdeko unibertsitateen eta goi-mailako irakaskuntza-zentroen arteko lankidetzak akademikoak. Akordio horiei esker, gradu eta masterreko titulazio bikoitzak (kasu batzuetan hirukoitzak) eta doktorego-tesien tutorekideak eskaini ahal izan dira. Bertako protagonistek aberasgarritzat jotzen dituzte aliantza horiek. Horrez gain, instituzioen elkar-ezagutza hobetzen dute eta Euroeskualdea “gorpuztu» eta erakundea nazioartekotzeko lehentasunezko eremu gisa ikusarazten laguntzen dute.

Hori guztia kontuan izanik, gradu eta masterreko titulazio bikoitzen eskaintza handiagoa diseinatzeko eta sustatzeko esparrua finkatzea da helburua. Estrategia honen 1. jarduera-lerroa behar bezala garatzeak berekin ekarri beharko luke titulazioen baterako eskaintza handitzea; espezializazioak, interesak eta lankidetzahalmenak bateratuz.

Funtsezko eragileei bidalitako inkestaren bidez jasotako iradokizunetako bat **mugikortasuna barne hartzen duten titulazio bikoitzak garatzea** da, batez ere, master mailan. Gainera, Euroeskualdeari berari eta haren interes estrategikoko eremuei lotutako espezializazioa eskaintzeko aukera aipatzen da, bertako prestakuntza-eskaerei erantzunez.

Eragileen arabera, tutorekideen bidez gidatutako tesien esperientziak eragin handia izan du Euroeskualdea lehentasunezko «joko-zelai» gisa hobeto kokatzeko orduan. Hori horrela izanik ere, aipatu dira lantalde espezifiko baten bidez landu daitezkeen zenbait hobekuntza-alderdi ere: unibertsitateen arteko epe desberdinak, komunikazio-defizita, prozedurak sinplifikatzea, proiektu eratorriak finantzatzea

2.2 Ekintza

Deialdien bidez, Euroeskualde mailako ikerketa taldeak/sareak sortzen laguntzea, ildo eta proiektu zehatzen inguruan.

Bikaintasunezko ikerketaren aldeko apustua da Euroeskualdeko unibertsitate-esparruko eragile guztiak biltzen dituen helburuetako bat.

Ikerketa-aukerak areagotuz doaz eta Euroeskualde eremuan nazioarteko taldeak eratzeak ikerketa-talde horien gaitasunak eta lehiakortasuna hobetzen lagun dezake. Izan ere, ikerketa are gehiago indartu behar da, murgilduta gauden osasun-larrialdi egoeran. Ikerketa hau ez dagokie soilik zientziaren eta teknologiaren sektorei, pandemiak astindu dituen arlo juridiko eta sozialaren auzia ere bada.

Euroeskualdean ikerketa-ekosistema bat sustatzeko ahaleginak egin behar dira, ikerketa-sare egonkorrak ezarri edota sendotzeko aukerak sortuz. Ildo horretan, irismen handiagoko proiektuak prestatu behar dira, Europako ekimenetan batera parte hartu ahal izateko eta Europako funtsak lortzeko aukerak zabaltzeko masa kritikoa areagotuz.

Kontuan hartu behar da, halaber, gaur egun nazioz gaindiko aliantza gisa aurrera egiten ari den **Europako Unibertsitateen proiektua**, non Akitania-Berriko, Euskadiko eta Nafarroako zenbait unibertsitatek¹ parte hartzen duten. Euroeskualdeetako eragile batzuk Europa osoko lankidetzapartzuergoetan inplikatzeko aukera ematen du proiektu horietan parte hartzen duten zein parte hartzen ez duten euroeskualdeetako unibertsitateen arteko lankidetzaukera eta formula berriak aztertzeko; ekimen horiek lankidetzaharreman batzuk, besteen kaltetan lehenetsiko dituzten arren, osagarritasunak sor ditzakete Euroeskualdeko eremuan, epe ertain eta luzean. Nolanahi ere, Euroeskualdeko eragileek esperientzia horietatik ateratako askotariko irakaskuntzak (gaiak, prozesua, gobernantza, etab.) baliatzea sustatu behar da. Hurbiltasunari eusteak eta dinamika kolektibo horiei eskualdeen arteko ikuspegitik laguntzeak lankidetzaparruak ireki ditzake Euroeskualde-mailan, eta sinergia interesgarriak azaleratu.

¹ Euskal Herriko Unibertsitateak eta Bordeleko Unibertsitateak ENLIGHT proiektuan, Arroxelako Unibertsitateak Conexus proiektuan, Pau eta Aturriko Herrietako Unibertsitateak UNITA proiektuan, Deustuko Unibertsitateak UNIC proiektuan.

Proiektuen bidezko lankidetza da Euroeskualdeak ikerketa sustatzeko diseinatu duen strategiaren oinarria. **Diru-laguntzen deialdiak** tresna eraginkorra dira ikerketa-taldeak elkarrekin konektatzeko eta dauzkagun azpiegituren erabilera komuna sustatzeko. Euroeskualdeak eremu pribilegiatua izan behar du bertako finantzaketa-bideetan.

Zentzu horretan, proposatzen da Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen proiektu deialdi edota beste finantza tresnek hurrengo alderdiak kontuan hartzea:

- Gizarte zientzien eta giza zientzien arloetak ikerketa-proiektuak barnean hartzea.
- Ikerketa-talde zein proiektu berrien garapena sustatu eta bultzatzeaz gain, horiek sendotzen ere laguntzea.
- Ikerketa-laborategien esparrua sortzea.
- Mugaz gaindiko gaiekin lotutako lanei (tesiak, argitalpenak...) eskainitako aitortza eta deialdien bidez, bikaitasuna sortzea.
- Diziplina anitzeko ikerketa-ekimenei lekua ematea, esate baterako, mugaz gaindiko think tank bat sortzea, «Mugaz gaindikoa izatearen» gakoei buruz hausnartzeko, ekintzetara bideratutako ideia-laborategiak abiarazteko...
- Eskala txikiko zientzia eta unibertsitate-jarduerak (mintegiak, kongresuak, ikasketa-bidaia, kirol edo kultura-topaketak, etab.) finantzatzeko aukera ematea.
- Euroeskualdearen arlo estrategiko ezberdinetan ikerketa eta berrikuntza proiektuak garatzen jarraitzea.



3.3

3. jarduera-lerroa:

Ikasleen eta irakasleen Euroeskualdeko mugikortasuna sustatzea, hurbileko nazioartekotzeari balioa emanez.

Euroeskualdeko eremuan ikasleen eta irakasleen mugikortasuna bultzatzea Euroeskualdearen Plan Estrategikoan jasotako ildoetako bat da. Mugikortasunaren sustapena, batez ere ikasleena eta doktoregaiena, estrategia hau egiterakoan identifikatutako unibertsitate-lankidetzako proiektu askotan agertzen da. Unibertsitate-erakunde ezberdinen eta Erasmus +KA 103 Programaren babespeko nazioarteko mugikortasun-proiektuen artean, hain zuzen, bultzada hori emateko berariazko hitzarmenak daudela egiaztatu da.

Euroeskualdea osatzen duten goi-mailako irakaskuntza-sistemek ere nazioartekotzearen aldeko apustua egiten dute eta hura bultzatzea lehentasunezko ardatza da. Egungo pandemia garaian, **hurbileko nazioartekotzea**, datuen arabera lehen erakargarria ez zena, **interes bereziko alternatiba gisa agertzen da**. Beraz, hurbiltasuneko nazioartekotzeari² balioa emateko unea da, Euroeskualdean eremu integratuago baterantz aurrera egiteko unea, **ikasleen, irakasleen eta ikertzaileen mugikortasun handiagoa** eta goi-mailako hezkuntzako erakundeen arteko harreman handiagoa izango duena.



Ikasleei dagokienez, Akitania Berria Euskadi Nafarroa eremuko mugikortasunak nazioarteko eta kulturarteko profil eleaniztuna ematen die eta, ondorioz, aukera gehiago eta hobeak eskaintzen dizkie etorkizunean karrera profesionala garatzeko.

Irakasleei kasuan, haien mugikortasuna sustatzeak unibertsitate erakargarriagoekin bat egitea dakar, horrela talentua erakartzen eta finkatzen lagunduz eta irakaskuntza eta ikerketa-proiektuen nazioartekotzea ahalbidetuz; kasu honetan, hori guztia eskuragarriago egiten duen hurbiltasun geografikoa abiapuntu izanik.

Euroeskualdean mugikortasuna areagotzen jarraitzearen egokitasuna berretsi egin da goi-mailako hezkuntzako kudeatzaile eta arduradunei zuzendutako inkestan jasotako erantzunetan, bai eta agente kualifikatuen artean egindako elkarrizketetan ere. Ikasleen zein irakasle eta ikertzaileen mugikortasuna sustatzeko beharrean adostasuna dago. Bi kasuetan, komenigarritzat jotzen da **pizgarriak indartzea, Euroeskualdeko mugikortasuna beste aukera batzuekin behar bezala lehiatu** eta denborarekin sendotu dadin.

Funtsezko eragileei egindako inkestak, **Euroeskualdeko mugikortasunak jasaten dituen hainbat oztopo** azaleratu ditu: Euskadiko eta Nafarroako unibertsitate-komunitateek duten frantsesaren ezagutza txikia, mugaren beste aldeko prestakuntza-eskaintzaren ezagutza gabezia, Akitania Berriko ikasleek Euskadi eta Nafarroako benetako potentzialtasunak eta trazio-sektoreak ez ezagutzea, prestakuntza-egutegi desberdinak izatea, curriculumaren antolaketa ezberdina(3+2 Akitania-Berrian, eta 4+1 EAEn eta Nafarroan), Euroeskualdearen iparraldeko eta hegoaldeko ikasleen mugimenduetan itzulera gutxi egotea (hegoaldeetik gehiago joaten dira iparraldera). Mugikortasunaren muga izan daitezkeen faktore horiek guztiak aztertu behar dira, Akitania Berria Euskari Nafarroa Euroeskualdeko mugikortasunari emandako bultzadan arrakasta lortu nahi bada. Gorago deskribatutako 1. jarduera-lerroaren bidez lortu nahi den elkar ezagutza hobetzea eta lankidetzaren sarea indartzea lagungarri izan daitezke aipatutako oztopoetako batzuk arintzeko.

Unibertsitateetatik **Euroeskualdeko hizkuntzen irakaskuntza sustatzearen aldeko** eta, bereziki, Euskadiko eta Nafarroako sistemetan frantsesa irakastearen aldeko beharrezko apustuaz gain, ikasleen mugikortasuna bultzatzeko proposamena **Euroeskualdeko Bekari bultzada berria ematea da, hura ikusgarriago bihurtuz eta erakargarritasun handiagoa emanez**.

Irakasle eta ikertzaileen mugikortasunaren kasuan, ikertzaileen mugikortasuna eta Euroeskualdeko egonaldiak sustatzeko berariazko deialdi bat egitea proposatzen da, batez ere juniorren kasuan.

² Unibertsitateko ekosistemako hainbat eragilek hurbileko lankidetzaren beren plangintza estrategikoan lan-ardatz gisa txertatzea beharrezkoa/aukera egokia dela adierazi dute. Eusko Jaurlaritzaren 2019-2023 aldirako Unibertsitate Sistemaren Planak Euroeskualdeko unibertsitateekin mugikortasun-ekintzetan lankidetzan aritzearen aldeko apustu esplizitua egiten du. Aipatzekoa da, halaber, Nafarroako Gobernuaren ekimen berri bat, non unibertsitateko ikasleen nazioarteko mugikortasunerako laguntzen azken deialdian, NAEN Euroeskualdeko unibertsitateetan egonaldiak egiten dituzten pertsonen lehentasuna ezartzen baitu.

3.1 Ekintza

Euroeskualdeko beka indartzea eta ikusgarritasun handiagoa ematea, Euroeskualdearen barruan ikasleen, irakasleen eta ikertzaileen nazioarteko mugikortasunari laguntzeko tresna gisa .

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea LLETek finantzaturiko Euroeskualdeko Beka, hiru lurraldeek osatzen duten espazioan, unibertsitateko ikasleen mugaz gaindiko mugikortasun akademikoari laguntzeko tresna bat da.

Gradu, master eta doktoregoko ikasleei zuzendutako beka hau 2015ean jarri zen abian, 20.000 euroko aurrekontu-zuzkidurarekin eta 15 ikasle onuraduneko lehen promozioarekin. 2017an bikoiztu egin zen bekadunen kopurua eta bere ibilbidea goranzkoa izan da.

Euroeskualdeko bekaren bidez, Euskadiko eta Nafarroako unibertsitateetako graduako eta masterreko ikasleak Akitania Berriko unibertsitateetara eta zentroetara joan daitezzen sustatu da, eta, azken edizioetan, baita Akitania Berriko doktoregaiak Euskadiko eta Nafarroako unibertsitateetara jo dezaten ere.

Beka-programa hau Euroeskualdeak COMUErekin izenpetutako lankidetzaren estrategiko baten esparruan hasi zen (Lurralde Koordinaziorako Akordioa). **Horri esker, AkiMob tresna sortu zen, Akitania Berriko mugikortasun-laguntza ezberdinak biltzen dituen lehiatilla bakarra**, eta horrek eskaerak zentralizatu, hautatu eta haiei administrazio eta finantza-jarraipena egitea ahalbidetu du. Euskadiko eta Nafarroako unibertsitateek ere bat egin dute tresnarekin.

2021-2022 ikasturtetik aurrera, Euroeskualdeak bere gain hartuko du Euroeskualdeko Bekaren kudeaketa; erakundeak plataforma bat izango du bere webgunean, eskaera-inprimakiak betetzeko aukera eskaintzeko, unibertsitateei eta zentroei prozesuaren berri emateko, emailtzari buruzko informazioa emateko eta ordainketak izapidetzeko.

Ikasleen mugikortasuna indartzeko Euroeskualdeko Beka

Estrategia honetan bekaren harira planteatzen den erronka baliabideari ikusgarritasun handiagoa ematea eta haren irismena handitzea da, horrela onuradunen kopurua handituz. Mugikortasuna sustatzeko tresna horren ikusgarritasuna handitzeko komunikazio-ekintza sendotuak abiaraziko dira, Euroeskualdeko unibertsitate-komunitateko maila guztietan.

Bestalde, ez da aurreikusten aldaketarik bekaren gutxieneko eta gehieneko iraupenari buruzko irizpideetan (2 eta 5 hilabete artean); horrela, laguntza ahalik eta onuradun gehienei emateko interesari emango zaio lehentasuna, eta ez ikasle bakoitzeko finantzaketa handiagoa emateari. Hala ere, lor daitezkeen helburu kuantitatiboak programa honi esleitutako aurrekontu-zenbatekoaren arabera izango dira.

Irakasle eta ikertzaile kolektiboaren mugikortasuna indartzeko Euroeskualdeko Beka

Euroeskualdearen barruan irakasle eta ikertzaile juniorrentzako nazioarteko egonaldiak finantzatzeko laguntza-programa bat sortzea da helburua. Ikertzaile berrientzako berariazko laguntza-lerro bat izateak, lurralde-gobernuek euroeskualdeko eremuan unibertsitateen arteko lankidetzaren indartzeko konpromiso esplizitua hartzea dakar. Horrez gain, Euroeskualdean talentua sortzen eta finkatzen, lankidetzaren kultura sustatzen eta nazioarteko mailako unibertsitate eta erakunde-sareak eratzen lagunduko du.

Proposamen hori unibertsitate-lankidetzaren proiektuen arduradunei eta unibertsitateetako arduradunei zuzendutako galdetegien bidez jasotako ekarpenetarako da. Bikaintasuneko ikerketarantz aurrera egiteko formula gisa, mugikortasuna, trukea eta lankidetzaren indartzen dituzten ekimenen sustapenarekiko sentsibilizazioa dagoela baieztatzen da, horrela jardueraren zientifikoa eta teknologikoa nazioartekotzen lagunduz eta, ondorioz, haren posizionamendua hobetuz. Horrez gain, Euroeskualdeak babesten dituen proiektuekin lotutako mugikortasuna identifikatutako lehentasun estrategikoekin batu daitekeela edo lehentasunezko tratamendua eman behar zaiola ere adierazi da.

Ikasleen mugikortasuna «Euroeskualdea sortzeko» tresna eraginkor eta positibotzat jotzen bada ere, «epeluzerako fruituak ematen dituen» palanka gisa ikusten da. Aldiz, irakasleen eta ikertzaileen mugikortasunak campusen arteko harremanak bizkortzen ditu eta eragin iraunkorra du, irismen luzeagokoa. Horregatik, Unibertsitate Lankidetzarako Estrategia honetan, bereziki azpimarratu nahi da mugikortasun-mota hori.

Irakasle eta ikertzaileen mugikortasuna sustatzeko ekimena osatzeko, unibertsitateko langileei laguntzeko baliabideak erabil daitezke, azken horiek kultura anitzeko prestakuntza-jardueretan eta egonaldiaren xede hizkuntzan antolatutako prestakuntza-ikastaroetan parte har dezaten.

Laguntza-multzo horrek aukera eman behar lioke Euroeskualdeari heldu beharreko gaiaren arabera lehentasunak ezartzeko. Bestetik, onuradun dagokienez, Euroeskualdeak lagundutako ekimenaren ezaugarriak (gaia, epeak, inplikaturako eragileak, emailtzak, etab.) Euroeskualdeari jakinarazteko baldintza bete behar lukete eta, horrekin batera, ekintza garatzerakoan erabilitako (Euroeskualdeko) finantzaketa-iturria(k) jakinarazteko konpromisoa hartu beharko lukete.

4 Adierazleak



SARETU

1. jarduera-lerroa

Saretzea. Euroeskualdeko unibertsitate lankidetzarako funtsezko eragileak artikulatzea.

- Foroko ordezkaritza politikoa/instituzionala (kopurua eta kargua)
- Foroan ordezkaturako unibertsitate/goi-mailako irakaskuntza-zentro kopurua
- Parte-hartzaile kopurua. Guztira eta lurraldeka
- Foroak eta bertako edukiek hedabideetan duten oihartzuna (albiste kopurua, lurralde bakoitzeko hedabide kopurua...)
- Foroari lotutako asebetetze-galdetegietako balorazioak (batezbesteko puntuazioak)
- Hurrengo foroetan lantzeko gai proposamenak eta iradokizunak
- Europako presentzia Foroan (ordezkari kopurua, kargua,...)



IKERKETA & PRESTAKUNTZA

2. jarduera-lerroa

Euroeskualdeko unibertsitate-komunitateak lankidetzan garatzeko prestakuntza eta ikerketa proiektu berriak sortzea.

- Titulazio bikoitz/hirukoitzetan parte hartzen duten unibertsitate kopurua
- Titulazio bikoitz/hirukoitzen kopurua
- Titulazio bikoitz/hirukoitzetan diharduten ikasleen kopurua
- Onartutako tutoretzakide bidezko tesi kopurua
- Argitalpen "labeldun" kopurua
- Euroeskualdeko lankidetzara bidezko ikerketa-proiektu kopurua.
- Europako deialdietara aurkeztutako proiektu kopurua
- Europako deialdietara aurkeztutako proiektuetan diharduten unibertsitate/zentro kopurua
- Euroeskualdeko lankidetzako proiektuei emandako sari/aintzatespen kopurua (prestakuntza zein ikerketa proiektuei)
- Euroeskualdeko atzerriko hizkuntzan prestakuntza-eskanitza duten unibertsitate kopurua
- Euroeskualdeko atzerriko hizkuntzan matrikulatutako unibertsitateko ikasle kopurua
- Euroeskualdeko atzerriko hizkuntzan matrikulatutako irakasle/ikertzaile kopurua



MUGIKORTASUNA

3. jarduera-lerroa:

Ikasleen eta irakasleen Euroeskualdeko mugikortasuna sustatzea, hurbileko nazioartekotzeari balioa emanez.

- Euroeskualdeko beka eskatu duen ikasle kopurua
- Euroeskualdeko beka eskatu duen doktoregai/ikertzaile kopurua
- Ikasleei esleituriko Euroeskualdeko beka kopurua
- Doktoregai/ikertzaileei esleituriko Euroeskualdeko beka kopurua
- Euroeskualdeko beken aurrekontu-hornidura (guztizko zenbatekoa, onuradun bakoitzeko zenbatekoa eta urteko aldakuntza-tasak)

5 Eranskinak



1

Unibertsitate eta Goi-mailako Irakaskuntza Sistemaren Mapa 26

1.1 Aurkezpena..... 27

1.2 E-maila nagusiak 44

2

Euroeskualdean azken urteetan garatutako unibertsitateko lankidetzako proiektuen errolda eta balantzea 50

2.1 Sarrera 51

2.2 Identifikatutako lankidetzako proiektuen analisia 52

2.3 Lankidetzako esperientziaren eta etorkizuneko aukeren balorazio kualitatiboa 56

2.3.1 Unibertsitate lankidetzarako interesa eta balorazioa..... 56

2.3.2 Unibertsitate lankidetzarako oztopoak 56

2.3.3 Euroeskualdeko unibertsitate lankidetzako sustatzeko erakunde mailako proposamenak 57

2.3.4 Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa LLET Euroeskualdearen zeregina etorkizunari begira 57

2.3.5 Euroeskualdeko lankidetzarako aukerak 58

2.3.6 Azken iradokizunak 59

3

Unibertsitate Lankidetzarako Jardunbide Egokien Benchmarkinga 62

3.1 Sarrera 63

3.2 Ondorioak 64

Taulak

1.1 Taula

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko unibertsitateak titulartasunaren arabera 44

1.2 Taula

Unibertsitate bakoitzeko ikasle kopurua guztira 44

1.3 Taula

Akitania Berriko goi-mailako irakaskuntza-zentroak titulartasunaren arabera..... 48

2.1 Taula

Unibertsitate-lankidetzako proiektuen taula, lankidetzako proiektu motaren arabera 53

2.2 Taula

Unibertsitate-lankidetzako proiektuen taula, jakintza-arloaren arabera 54

2.3 Taula

Unibertsitate-lankidetzako proiektuen taula, Euroeskualdeko ardatz estrategikoaren arabera 55

2.4 Taula

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko aliantza eta unibertsitate lankidetzako proiektuen eskema 60

Grafikoak

Grafikoa 1.1

Ikasleen banaketa heziketa zentroaren eta unibertsitatearen arabera 45

Grafikoa 1.2

Ikasleen banaketa unibertsitateko, ikasketa-eremuaren arabera 46

Grafikoa 1.3

Ikasle atzerriarren ehunekoa unibertsitateko 47

1

Unibertsitate eta Goi-mailako Irakaskuntza Sistemaren Mapa

1.1 Aurkezpena

Atal honek Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko unibertsitateen ezaugarriak jasotzen ditu fitxa sintetikoetan. Fitxetan, titulartasuna, ikasle-bolumena eta jakintza-eremuen arabeko titulazioen eskaintza zehazten dira eta baita unibertsitate bakoitzeko ikasle atzerritarren kopurua ere. Informazio hori iturri estatistiko ofizialen ustiapenetik lortu da, hain zuzen ere, Espainiako unibertsitate-sistemako (SIU- Unibertsitateko Informazio Sistema Integratua, gaztelaniazko siglen arabera) eta Frantziako goi-mailako irakaskuntza sistemako (Goi-mailako Irakaskuntza, Ikerketa eta Berrikuntza Ministerioaren Open Data) gobernu-plataformetatik.

Unibertsitateez gain, Akitania Berrian dauden goi-mailako hezkuntza zentroi buruzko informazioa ere gehitu da. Zentro horietako gehienak Goi Mailako Irakaskuntza, Ikerketa eta Berrikuntza Ministerioaren mende daude, baina Kultura Ministerioaren mendeko eskolak ere badaude. Atal honetan eskuragarri dauden datuak ez dira homogeneoak, eta, kasu batzuetan, dagozkien webguneetara jo da informazioa jasotzeko.

Egindako fitxetan, aurkezpen honen lehen puntuan aipatutako datu kuantitatiboez gain, aztergai den goi-mailako hezkuntza-sistema osatzen duten erakundeen parte-hartzea duten Euroeskualdeko lankidetzaproiektuen zerrenda ere jasotzen da; bertan mugaren bi aldeetako unibertsitate zein goi-mailako irakaskuntza-zentroek esku hartzen duten proiektuei soilik jarri zaie arreta. Proiektu horiek Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLETek unibertsitate eta goi-mailako ikastetxeetako proiektu-arduradun eta kudeatzaileen artean zabaldutako online galdetegi baten bidez identifikatu dira.

Azkenik, fitxetan, nazioartekotze-ardatzarekin edota goi-mailako hezkuntza-sistemako eragileen arteko aliantzak eratzearekin lotura estua duten plan estrategikoei, orientazioei edo lehentasunei buruzko aipamen bat ere jaso da, aukera izan denean.



NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

IDENTIFIKAZIOA	Titulartasuna	Publikoa	21			
	Kokalekua	Euskal Autonomia Erkidegoa				
	Ikasle kopurua	43.370				
IKASLEAK	2018-2019ko datuak		TITULAZIO KOPURUA			
			Gradua	Masterra	Doktoretza	Guztira
	Gizarte eta zuzenbide zientziak		15.985	1.224	1.069	18.278
	Ingeniaritza eta arkitektura		8.253	1.327	624	10.204
	Arteak eta giza zientziak		3.370	325	541	4.236
	Osasun zientziak		5.836	286	716	6.838
	Zientziak		2.712	247	855	3.814
	GUZTIRA		36.156	3.409	3.805	43.370
	Ikasle atzerritarrak*		873	639	722	2.234
	* Nazioartetik etorri diren ikasleak: 2.229 (% 5.14).					
PRESTAKUNTZA -ESKAIN TZA	2018-2019ko datuak		TITULAZIO KOPURUA			
			Gradua	Masterra	Doktoretza	Guztira
	Arteak eta giza zientziak		10	17	9	36
	Zientziak		9	15	15	39
	Osasun zientziak		7	13	10	30
	Gizarte eta zuzenbide zientziak		23+1*	38	16	77+1*
	Ingeniaritza eta arkitektura*		22+2*	37	16	75+2*
	GUZTIRA		71+3*	120	66	257+3*
*Gradu bikoitzak						
IRAKASLEAK	Irakasle-ikertzaileak, guztira: 4.475 Arduraldi osoko irakasle-ikertzaileak: 3.557					
UNIBERTSITATEEN ARTEKO LANKIDETZA EUROESKUALDE MAILAN	• Gazte euskaldunen hizkuntza-aniztasuna eta identitate globalak sare sozialetan • Pirinioetan klima-aldaketarekiko kalteberak diren ekosistemen (lakuak, zohikaztegiak) behatoki en sarea • REPLIM • Kirola eta aisia, Europako lurralde-lankidetzaren testuinguruan: jarduera publikoa, praktikak eta erabilerak • TransPORT(S) • OCEAN I3 • Euskadi Vin Aquitaine • EVA • QuantumChemPhys laborategia • Doktoretza-tesien kotutoretzarako hitzarmenak Bordeleko Unibertsitatearekin • Doktoretza-tesien kotutoretza • UPPA • Control in Smartgrids unibertsitate-masterra • ESTIA • Industria-antolakuntzako ingeniaritza unibertsitate-masterra • ESTIA • Diploma bikoitza • ENSAP • Pertsonen trafikoari eta immigrazioari buruzko mugaz gaindiko ikasketa taldea • ETIC • ESKOLA FUTURA • EKATE • ADDITool • TRANSFROND3D • BIOREN4UNI • ISOTOPO • TURQUOISE • Botrytis • Enologia berritzaileko unibertsitate-masterra					
 - Jasangarritasuna, Ingurumena, Klima-aldaketa
 - Agronomia
 - Itsas baliabideak: ekonomia urdineko hezkuntza eta enplegarritasuna
 - Teknologia eta robotika (produktu berriak)
- Mugaz gaindiko **laborategiak** (ikerketa).
- **Mugikortasuna**, batez ere ikasleena, hori baita lankidetzaren ardatza. Ezohikoagoa da irakasleen, doktoregaien eta Administrazioiko eta Zerbitzuetaiko langileen mugikortasuna.
- **Lankidetzako akademikoak:** titulazio bikoitzak edo hirukoitzak eta doktorego-tesien tutorekideak.
- **Sareak sortzea.**

Zientzien eta Irakaskuntza Teknikoko jakintza-arloetakoak dira proiektu gehienak; baina, hala ere, Osasun arloari, Gizarte Zientziei zein Zuzenbide Zientziei eta, neurri txikiagoan, Arteei eta Giza Zientziei dagozkien proiektuak ere detektatzen dira. Hori bai, badira diziplina anitzeko proiektuak ere.

Identifikatutako proiektuek bat egiten dute **Euroeskualdearen ardatz estrategikoekin: Hiritartasuna, Lurralde Jasangarria eta Ezagutzaren Ekonomia, Berrikuntza eta Lehiakortasuna.**

- Ezagutzaren, Berrikuntzaren eta Lehiakortasunaren ardatzak erabateko nagusitasuna du unibertsitate lankidetzako proiektuei dagokienez. Osasungintza eta energia berriztagarrien arloa protagonismoa hartuz doaz.
- Lurralde Jasangarriaren ardatza bigarren postuan dago. Bloke honetan, nekazaritzari, hondakinen kudeaketari, eraikuntza jasangarriari, klima-aldaketari edo ekonomia urdinari lotutako proiektuak nabarmendu daitezke.
- Hiritartasunaren ardatzean, eleaniztasuna da aztertutako unibertsitate-lankidetzako proiektuetan gehien agertzen den eremua, baina badira beste gai batzuk ere, hala nola garraioa.

Bestalde, interesgarria da adieraztea identifikatu direla unibertsitateen partaidetzaz gain beste eragile batzuk ere inplikatura dauden proiektuak (teknologia-zentroak, merkataritza-ganberak, ikerketa-agentziak, ospitale-zentroak, lurralde-eragileak, laborategiak, elkarteak, etab.)

Jasotako unibertsitate-lankidetzako proiektuen finantzaketa-iturriak askotarikoak dira, eta Europako programen presentzia nabarmentzen da. Hainbat proiektu POCTEFA, Erasmus eta Aquimob, zein SUDOE Interreg IV programen bidez finantzatu dira eta badira NAEN Euroeskualdetik, Euskampus Fundaziotik, idEx Bordeaux eta EHUtik, Pirinioetako Lan Elkartetik eta Eusko Jaurlaritzatik funtsak lortu dituzten beste batzuk ere.

2.1 Taula

Unibertsitate-lankidetzako proiektuen taula, lankidetzako proiektu motaren arabera

	Proiektuaren izena	Proiektu mota Lankidetzako eremua		
		Mugikortasuna	Prestakuntza	Ikerketa Berrikuntza Transferentzia
1	Eleaniztasuna eta Identitate Glokalak Sare Sozialetan, Euskal Gazteen artean			✓
2	Vites Qualitas			✓
3	Klima-aldaketaren aurrean sentikorrek diren ekosistemen behatoki sarea (aintzirak, zohikaztegiak) pirinioa • REPLIM			✓
4	Osasungintzaren sektoreko Mugaz Gaiendiko Jarduera Berrizaleen Garapena • HEALTH LSR			✓
5	Teknologia Osasunaren Zerbitzura: Azken Belaundiko Medikuntzako Gailuen Garapena • LGMED			✓
6	Pilen Kudeaketa Ekologikoa, Erreketa bidezko Ikatz-hondakinak behatuz • ECOAL-MGT • SUDOE INTERREG IV			✓
7	Euskadi Vin Akitania • Eva			✓
8	Pertsonen Trafiko Ilegalari eta Immigrazioari buruzko Mugaz Gaiendiko Ikerketa Taldea • ETIC			✓
9	Ekate			✓
10	Transfron3d			✓
11	Connect Innovation Bai			✓
12	Transferinn			✓
13	Darwin			✓
14	Turquoise 00			✓
15	Onconaen			✓
16	Cardioreg			✓
17	Isotopo			✓
18	Bioren4uni			✓
19	Botrytis			✓
20	Egin+			✓
21	Kirola eta Aisialdia Europako Lurralde Lankidetzaren testuinguruan: Ekintza Publikoa, Praktikak, Erabilerak • Transport(S)	✓		✓
22	Quantumchemphys Laborategia	✓	✓	✓
23	Additool	✓		✓
24	Eskola Futura	✓	✓	
25	Poctefa 2018-2019		✓	
26	Ocean 13 • Poctefa	✓	✓	
27	Erasmus KA103	✓		
28	Deustuko Unibertsitatearen eta Euroeskualdeko Unibertsitateen arteko Mugikortasun Hitzarmenak (Bordeleko Unibertsitatea, Bordele-Montaigne Unibertsitatea, Pauko Unibertsitatea eta Bordeaux INP)	✓		
29	Lankidetzako Proiektua - Estia eta Mondragon Unibertsitatea	✓		
30	EHU-ESTIA Doktoregaien Mugikortasuna	✓		
31	Tutorekidetzako, Doktoretza eta Doktoretza Ondoko proiektua		✓	✓
32	Bordeleko Unibertsitatearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko Tutorekidetzako Hitzarmena	✓	✓	✓
33	Tutorekidetzako gidaturiko 2 Tesi CDRE eta EHUnen artean, bata burutua eta bestea bidean.		✓	
34	Tutorekidetzako: Euskal Herriko Unibertsitatea • Bordeleko Unibertsitatea		✓	✓
35	Tesi Tutoretza Bikoitza			
36	Frantzia-Espainia Mugaz Gaiendiko Arkitektura Diploma Bikoitza	✓	✓	✓
37	Mugaz gaindiko Lurralde Proiektua. Master komunekoIrakaskuntza Modulua Bordeleko ENSAP eta Donostiako ETSA Unibertsitate seihileko baten lanketa bateratua		✓	✓
38	Control In SmartgridsUnibertsitate Masterra	✓	✓	
39	Industria Antolaketako IngeniaritzaUnibertsitate Masterra	✓	✓	
40	Enpresa Berrikuntza eta Proiektuen Zuzendaritza Unibertsitate Masterra	✓	✓	
41	Enologia Berrizaleko Unibertsitate Master Ofiziala (EVari lotua)		✓	
42	Nazioarteko Titulazio Bikoitza ADE + Digital Business Skills	✓	✓	

2.2 Taula

Unibertsitate-lankidetzako proiektuen taula, jakintza-arloaren arabera

	Proiektuaren izena	Proiektu mota Lankidetzaren eremua					
		Arteak eta Giza Zientziak	Gizarte eta Zuzenbide zientziak	Zientziak	Osasun Zientziak	Ira- kaskuntza teknikoak	Beste
1	Eleaniztasuna eta Identitate Glokalak Sare Sozialetan, Euskal Gazteen artean		✓				
2	Vites Qualitas						
3	Klima-aldaketaren aurrean sentikorrak diren ekosistemen behatoki sarea (aintzirak, zohikaztegiak) pirinioa • REPLIM			✓			
4	Osasungintzaren sektoreko Mugaz Gaiendiko Jarduera Berritzaileen Garapena • HEALTH LSR				✓		
5	Teknologia Osasunaren Zerbitzura: Azken Belaunaldiko Medikuntzako Gailuen Garapena • LGMED				✓		
6	Pilen Kudeaketa Ekologikoa, Erreketa bidezko Ikatz-hondakinak behatuz • ECOAL-MGT • SUDOE INTERREG IV					✓	
7	Euskadi Vin Akitania • Eva			✓			
8	Pertsonen Trafiko Ilegalari eta Immigrazioari buruzko Mugaz Gaiendiko Ikerketa Taldea • ETIC		✓				
9	Ecate					✓	
10	Transfron3d					✓	
11	Connect Innovation Bai					✓	
12	Transferinn					✓	
13	Darwin			✓			
14	Turquoise 00			✓			
15	Onconaen				✓		
16	Cardioreg				✓		
17	Isotopo			✓			
18	Bioren4uni			✓			
19	Botrytis			✓			
20	Egin+			✓			
21	Kirola eta Aisialdia Europako Lurralde Lankidetzaren testuinguruan: Ekintza Publikoa, Praktikak, Erabilerak • Transport(S)		✓				
22	Quantumchemphys Laborategia			✓			
23	Additool					✓	
24	Eskola Futura	✓					
25	Poctefa 2018-2019	✓					
26	Ocean 13 • Poctefa						
27	Erasmus KA103	✓	✓	✓	✓	✓	
28	Deustuko Unibertsitatearen eta Euroeskualdeko Unibertsitateen arteko Mugikortasun Hitzarmenak (Bordeleko Unibertsitatea, Bordele-Montaigne Unibertsitatea, Pauko Unibertsitatea eta Bordeaux INP)						
29	Lankidetzaren Proiektua - Estia eta Mondragon Unibertsitatea						
30	EHU-ESTIA Doktoregaien Mugikortasuna						
31	Tutorekidetzaren, Doktoretza eta Doktoretza Ondoko proiektua				✓		
32	Bordeleko Unibertsitatearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko Tutorekidetzaren Hitzarmena		✓				
33	Tutorekidetzaren gidaturiko 2 Tesi CDRE eta EHUren artean, bata burutua eta bestea bidean.		✓				
34	Tutorekidetzaren: Euskal Herriko Unibertsitatea • Bordeleko Unibertsitatea				✓		
35	Tesi Tuteretzaren Bikoitza						
36	Frantzia-Espainia Mugaz Gaiendiko Arkitektura Diploma Bikoitza						
37	Mugaz gaiendiko Lurralde Proiektua. Master komunekoIrakaskuntza Modulua Bordeleko ENSAP eta Donostiako ETSA. Unibertsitate seihileko baten lanketa bateratua					✓	✓
38	Control In SmartgridsUnibertsitate Masterra					✓	
39	Industria Antolaketako IngeniaritzaUnibertsitate Masterra					✓	
40	Enpresa Berrikuntza eta Proiektuen Zuzendaritza Unibertsitate Masterra					✓	
41	Enologia Berritzaileko Unibertsitate Master Ofiziala (EVari lotua)			✓			
42	Nazioarteko Titulazio Bikoitza ADE + Digital Business Skills						

2.3 Taula

Unibertsitate-lankidetzako proiektuen taula, Euroeskualdeko ardatz estrategikoaren arabera

	Proiektuaren izena	Proiektuak Euroeskualdeko Ardatz estrategikoen arabera		
		Hiritartasuna	Ezagutzaren ekonomia, berrikuntza eta lehiakortasuna	Lurralde Jasangarria
1	Eleaniztasuna eta Identitate Glokalak Sare Sozialetan, Euskal Gazteen artean	✓		
2	Vites Qualitas		✓	✓
3	Klima-aldaketaren aurrean sentikorrak diren ekosistemen behatoki sarea (aintzirak, zohikaztegiak) pirinioa • REPLIM			✓
4	Osasungintzaren sektoreko Mugaz Gaiendiko Jarduera Berritzaileen Garapena • HEALTH LSR		✓	
5	Teknologia Osasunaren Zerbitzura: Azken Belaunaldiko Medikuntzako Gailuen Garapena • LGMED		✓	
6	Pilen Kudeaketa Ekologikoa, Erreketa bidezko Ikatz-hondakinak behatuz • ECOAL-MGT • SUDOE INTERREG IV			✓
7	Euskadi Vin Akitania • Eva	✓	✓	✓
8	Pertsonen Trafiko Ilegalari eta Immigrazioari buruzko Mugaz Gaiendiko Ikerketa Taldea • ETIC			✓
9	Ecate		✓	
10	Transfron3d		✓	
11	Connect Innovation Bai	✓	✓	
12	Transferinn			
13	Darwin		✓	
14	Turquoise 00		✓	✓
15	Onconaen		✓	
16	Cardioreg		✓	
17	Isotopo		✓	
18	Bioren4uni		✓	
19	Botrytis		✓	
20	Egin+		✓	✓
21	Kirola eta Aisialdia Europako Lurralde Lankidetzaren testuinguruan: Ekintza Publikoa, Praktikak, Erabilerak • Transport(S)	✓		
22	Quantumchemphys Laborategia		✓	✓
23	Additool		✓	
24	Eskola Futura	✓		
25	Poctefa 2018-2019	✓		
26	Ocean 13 • Poctefa	✓	✓	✓
27	Erasmus KA103			
28	Deustuko Unibertsitatearen eta Euroeskualdeko Unibertsitateen arteko Mugikortasun Hitzarmenak (Bordeleko Unibertsitatea, Bordele-Montaigne Unibertsitatea, Pauko Unibertsitatea eta Bordeaux INP)			
29	Lankidetzaren Proiektua - Estia eta Mondragon Unibertsitatea			
30	EHU-ESTIA Doktoregaien Mugikortasuna			
31	Tutorekidetzaren, Doktoretza eta Doktoretza Ondoko proiektua	✓	✓	✓
32	Bordeleko Unibertsitatearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko Tutorekidetzaren Hitzarmena	✓		✓
33	Tutorekidetzaren gidaturiko 2 Tesi CDRE eta EHUren artean, bata burutua eta bestea bidean.			
34	Tutorekidetzaren: Euskal Herriko Unibertsitatea • Bordeleko Unibertsitatea		✓	
35	Tesi Tuteretzaren Bikoitza			
36	Frantzia-Espainia Mugaz Gaiendiko Arkitektura Diploma Bikoitza	✓	✓	✓
37	Mugaz gaiendiko Lurralde Proiektua. Master komunekoIrakaskuntza Modulua Bordeleko ENSAP eta Donostiako ETSA Unibertsitate seihileko baten lanketa bateratua	✓	✓	✓
38	Control In SmartgridsUnibertsitate Masterra		✓	
39	Industria Antolaketako IngeniaritzaUnibertsitate Masterra			
40	Enpresa Berrikuntza eta Proiektuen Zuzendaritza Unibertsitate Masterra			
41	Enologia Berritzaileko Unibertsitate Master Ofiziala (EVari lotua)	✓	✓	✓
42	Nazioarteko Titulazio Bikoitza ADE + Digital Business Skills			

2.3

Lankidetza esperientziaren eta etorkizuneko aukeren balorazio kualitatiboa

2.3.1

Unibertsitate lankidetzarako interesa eta balorazioa

Lankidetza-proiektuetako kudeatzaileei zuzendutako galdetegiko hainbat galderek garatutako esperientziei buruzko balorazio kualitatiboak jasotzea zuten helburu: indarguneak eta ahulguneak, aurkitutako oztopoak, etab.

Azpmarratu behar da proiektuen **kudeatzaileek lankidetza-esperientziaz egindako balorazioa, oro har, oso positiboa dela**, eta aberasgarritzat ere jo dutela. Erantzunetan baieztatu dutenez, garatutako ekimenek, «lurraldeen arteko hurbilketa», “esparru komuna duten erakundeen arteko hurbilketa», «gaurkotasuneko gaietan osagarritasunak lortzea», «proiektuak sortzeko topagunea», «ezagutzaren eremu zehatzetan mugaz gaindiko ikerketa-komunitate bat sortzea», «Ikerketa-proiektuak lurraldearen benetako arazo eta erronketara bideratzea», «etorkizuneko lankidetzarako harremanak ezartzea «ahalbidetu dute. Asko dira esperientzia errepikatu nahi duten eragileak eta beste askok lankidetzaren eskala eta irismena handitu nahi dituzte.

Bestalde, erakundeei egindako inkestan, **unibertsitate/zentroetako arduradunek, oro har, baieztatu dute interesgarria iruditzen zaiela** Euroeskualdeko mugaz gaindiko goi-mailako hezkuntza-sistema osatzen duten eragileen arteko lankidetza. Eragile horietako askok adierazi dute interesgarria ez ezik beharrezkoa ere badela.

Erakundeei beren plan estrategikoetan edo ekintza-planetan **hurbiltasuneko nazioartekotzea** kontuan hartzen duten edo planean txertatzea aurreikusten duten galdetuta, ondorioztatzen da Euroeskualdeko unibertsitate-lankidetzako eragileen **heltze-faseak oso desberdinak** direla: batzuentzat lehentasunezko eremua da eta esperientzia handia dute; beste batzuek, ordea, garapen gutxiko eremua dela onartzen dute. Eragile batzuentzat nazioartekotzeak eskualdekoa baino ikuspegi zabalagoa du; beste batzuek, berriz, hurbiltasuneko nazioartekotzean jartzen dute arreta.

2.3.2

Unibertsitate lankidetzarako oztopoak

Proiektuen kudeatzaileek adierazitako oztopo nagusiei dagokienez, aipagarrienen artean daude gehiegizko burokrazia («4 hizkuntzetara itzultzeko beharra, adibidez»), burokrazia horren justifikazio-baldintzen kostuak eta zurruntasuna eta finantzaketa («materialak, joan-etorriak,...»); eta jarraian, proiektuen kudeaketari berari lotutako zailtasunak kokatzen dira, izan ere, eragile asko dituzte hainbat herrialdetan, eta abar. Horien atzetik, proiektuen egutegiari eta epeei loturiko zailtasunak agertzen dira: kasu askotan, epe laburregiak izaten dira eta mugaren bi aldeetan doitu gabeak, tutorekideen kasuan adibidez, edota ekimenaren izaerarekin bat ez datozenak, Agronomian, esaterako. Unibertsitateen kultura ezberdinak, elkarrizketarako arazoak eta hizkuntza (proiektuko kideen arteko ezagutza falta desorekatua, adibidez), ere agertzen dira. Halaber, COVID-19ak eragindako pandemia ere aipatzen da, proiektu batzuetan eragin negatiboa duen faktore gisa.

• Euroeskualdeko unibertsitateekin/zentroekin dituzten lankidetza-harremanetan dauden oztopoei buruz erakundeetako arduradunek emandako erantzunak kontuan hartuta, inkestan parte hartu duten lau lagunetik hiruk dio zailtasunak daudela edo, zailtasunik izan ez arren, Euroeskualdeko goi-mailako irakaskuntza-sistemako eragileekin dituzten lankidetza-harremanak hobetu daitezkeela. Gehien aipatzen diren oztopoen artean daude ikastetxeen eta beren eskaintzen eta proiektuen arteko ezagutza falta, deialdi egokirik eta finantzaketa nahikorik eza, eta hizkuntzari, araudiei, burokraziari eta abarri lotutako zailtasunak.

Ikastetxeen arteko ezagutza falta:

Hurbiketa beharrezkoa da, elkartzeko ekimenak sortu behar dira horela ekintzak elkarrekinabiatzeko. *«Mugaren bi aldeko errealitateen artean benetako diztanzia dagoela (politikoa, ekonomikoa, kulturala) uste dut eta horrek elkartzeko eta fusionatzeko lanketa handia eskatzen du eta lanerako espazio komunak eraiki beharra».*

Deialdiak eta finantzaketa

Proiektu komunak artikulatzeko deialdi egokien falta eta lankidetza horietarako finantziatzio falta. *«Irakasleen arteko masa kritikoa erakartzeko, euroeskualdeak eskaintzen Europa mailako programen prekoak izan behar dute».*

Hizkuntzak, araudiak, burokrazia...

«Proiektuak zehasteko dagoen borondateari esker lortzen da oztopo gehienak gainditu edo minimizatzea».

2.3.3

Euroeskualdeko unibertsitate lankidetza sustatzeko erakunde mailako proposamenak

Unibertsitateko arduradunek eta proiektu kudeatzaileek egindako proposamenek honako gai nagusi hauek aipatzen dituzte:

→ **Urrutien dauden lurraldeetako unibertsitate eragileei (Bordeleko, Arroxelako, Limogeseko Unibertsitateak) eta gainerako eragileei NAEN Euroeskualdea ezagutaraztea**, haien potentziala ikusaraztea eta lankidetza-ekimenetan parte hartzera bultzatzea.

→ Hala ere, **ikerketako, berrikuntzako eta prestakuntzako proiektuak eta gaitasunak ikusarazteko eta harremanetan jartzeko** lana beharrezkoa da oraindik Euroeskualde osoan eragileek elkar ezagutu dezaten eta lankidetzan aritzeko elkarrengana hurbil daitezen.

→ Helburu hori gogoan, **topaketa, biltzar, jardunaldi...** gehiago antolatu behar dira, **orokorrak** zein **gaikakoak**, eta baita **garatutako proiektuak balioztatzeko ekintzak ere** (webgune bat sortzea, argitalpenak, erakusketak).

→ Horrez gain, **unibertsitatez kanpoko eragileen parte-hartzea bultzatzea** (unibertsitatea-gizartea bilduz) unibertsitateko lankidetzarako bideak zabaltzeko.

→ **Laguntza, finantzazio eta arretarako tresna berriak diseinatzea, baterako jardueri euskarria emateko.** Tresna horiek administrazio mailako sinpletasuna (burokrazia sinplifikatuz) eta emaitzen eraginkortasuna uztartu behar dituzte.

→ Ildo horretan, laguntza programak aipatzen dira helburu hauetarako:

- **Unibertsitate arteko doktoregoak finantzatzea.**
- **Ikerketa-egonaldiak egitea ikertzaile juniorrentzat (doktoretza aurrekoak eta ondokoak**
- **Ikerketa-egonaldiak egitea ikertzaile seniorrentzat.**
- **Unibertsitate arteko gradu eta master titulazioen eskaintza.**

→ **Euroeskualdeko ikerketa taldeen** garapena eta finkatzea sustatzea eta talde horiek mantentzeko eta proposatzen dituzten ikerketa-lerroak garatzeko finantzazioa eskaintzea.

→ **Eskualdeentzat inbertsio estrategikokoak diren eremu bateratuen arabera koordinatu eta egituratuko diren ekintzak** sustatu eta burutzea, ikerketaren finantzazioa Euroeskualdearentzat komunak diren eremu estrategiko horietako **eragin handiko proiektuetara** bideratuz. Ildo berean, **RIS3ekin loturiko Euroeskualdeko eskaintza** sustatzea planteatzen da.

→ Laguntza hori **Europa Ortzi-muga esparru-programara** aurkeztutako ikerketa proiektuekin lotzea.

→ **Eleaniztasunaren** esparruan, ingelesezko irakaskuntza-eskaintza zabaltzea aipatzen da (erakargarritasuna eta trukeak handitzeko elementu gisa), eta baita euskararena ere (eta euskal kulturarena) lotura eta komunikazio uztarri gisa, gutxienez mugatik hurbileneko inguruan.

2.3.4

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa LLET Euroeskualdearen zeregina etorkizunari begira

Kontsultatutako eragile gehienek **zeregin garrantzitsua** esleitzen diote LLETi, Euroeskualdeko unibertsitate lankidetza sustatzeko **katalizatzaile eta bideratzaile** gisa. Zehazki, honako egiteko hauek aipatzen dituzte:

→ Euroeskualdearen ikuspegi/labelizaziotik, **lankidetzak sustatzea, unibertsitate-lankidetzako proiektuak eta ekimenak ikusaraztea** eta lankidetzak garatzeko tresnak eta finantzaketa diseinatu eta eskuragarri jartzea. Hala ere, horretarako LLETek ekimen bereziak bultzatzeko finantzaketa egokia izan beharko lukeela adierazten da, ondo bideratuta eta helburu argiak ezarrita.

→ Horrez gain, Euroeskualdeko bazkideen arteko zein bazkide horiek beste eskualde batzuekin dituzten **lankidetzetarako finantzaketa bilatzen laguntzeko** zeregina ere aipatzen da, kasu honetan ere koordinatzaile gisa jardunez, Europako deialdietara aurkezteko proiektu eta finantzaketa eskaerak bideratzeko ekimen bateratuetan.

→ **Networking eta sinergiak sortzera bideratutako ekitaldiak sustatzea.** Euroeskualdeko ikastetxeen arteko topaketak gidatzea eta antolatzea.

→ Mugaz gaindiko unibertsitate-lankidetzaren edota goi-mailako hezkuntzaren eta ikerketaren inguruko ekimenak bultzatu nahi dituzten **hainbat mailatako eragileen tresnen koordinazioa**, batzuetan itundu gabekoak diruditenak (CAPB, CD64, GFA eta abar).

→ **Mugikortasun-bekak nagusiki Euroeskualdeak babesten dituen proiektuekin lotzea, RIS3ren lehentasunak indartzeko**, adibidez. Eta ikasle onuradunen enplegarritasuna garatzea Euroeskualdean eskari handiena duten sektoreetan.

→ Unibertsitate-lankidetzako **ekintzak bultzatzeko ideia-zentro edo laborategi bat sortzearekin lotutako zereginak** ere agertzen dira:

- Lurraldearen garapenerako ideia-laborategi bat antolatzea: diziplinartekoa, eleaniztuna, eragile anitzekoa.
- Mugaz gaindiko konpetentzien zentro baten sorrera sustatu eta hari laguntza eskaintzea, Frantzia eta Alemaniaren arteko mugako Novatris adibidetzat hartuta.

→ **Europako unibertsitate-txartelaren gisako txartela lantzea Euroeskualde mailara egokituta**, MUGI erreferentziatzat hartuta, garraio publikoaren mugaz gaindiko eskaintza multimodal bat eskuratzeko aukera ematen baitu.

→ Euroeskualde guztiko egungo zein etorkizuneko ikasleei zuzendutako **Euroeskualdeko foro/azoka bat antolatzea**, prestakuntza-aukeren edota laneratze-aukeren berri emateko; «Euroeskualdeetako» gradu edo masterra prestatzea.

2.3.5 Euroeskualdeko lankidetzarako aukerak

Lankidetzaproiektu batzuk mantentzearen aldeko apustuaz gain (mugaz gaindiko laborategiak, adibidez), **egungo proiektuak kudeatzen dituzten pertsonak** adierazitakoaren arabera, euroeskualdeetako mugaz gaindiko **ekimen berriak** antzeman dira, **aurreikusitakoak edo prestatzen ari direnak**. Hauek izan dira erantzunetan jasotako proposamen zehatzak:

- **Adimen-artifizialari (AA) buruzko ikerketa-talde bat sortzea**, Euroeskualdearen mugaz gaindiko esparruko pertsonen zaintza eta kontrol elektronikoari aplikatutako AA helburu izango duena. Proiektu horretan parte har dezakete Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Paueko Unibertsitateak (Baionako Europako Ikasketen Ikerketa Zentroa) eta Euskal Herriko Unibertsitateak.
- TranSPORT-EuroNAEN proiektuarekin lotuta, **Lankidetzarako Mugaz Gaindiko Laborategiak edo mugaz gaindiko kirola eta aisiari buruzko behatoki bat** sortzea planteatzen da, lotutako erronka eta arazo guztiak barne hartuko dituen. Horretarako, EHUKo eta UPNAko irakasleak Bordeleko Unibertsitateko prestakuntzan inplikatu daitezke. Kirolaren kudeaketan titulazio bikoitza garatzea Bordeleko Unibertsitatearen eta EHUren artean. Proiektu honetan parte har dezakete Maison des Sciences de l'Homme d'Aquitaine ikastetxeak, Bordeleko Unibertsitateak, Bordeaux Montaigneko Unibertsitateak, EHUK, UPNAk hainbat mailatako administrazio publikoek, bereziki tokikoek, eskualdekoek zein elkargoek eta baita kirol eta aisialdi-erakunde publikoek, elkarteek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak ere.
- **Gaixotasun neurodegeneratiboen arloan jarduteko mugaz gaindiko laborategi bat sortzea**. Proiektu honetan EHUK, Bordeleko Unibertsitateak eta ziurrenik Achucarrok (Neurozientziarako Euskal Zentroak) eta Bizkaiko enpresa bioteknologikoren batek parte hartzea aurreikusten da.
- Uraren kalitatea neurtzeko **zuntz optikoko sentsoreak garatzea**. Proiektu honetan Bordeleko Unibertsitateak, Limogesko Unibertsitateak, NILSAK (Navarra de Infraestructuras Locales, S.A.) eta Iruñerriko Mankomunitateak parte hartzea aurreikusten da.

Kontsultatutako hainbat **eragile instituzionalei** Euroeskualdeko unibertsitate-lankidetzak beren zentro/erakundeentzat dituen **aukerei** dagokienez galdetu zaienean, honako ekarpen nagusi hauek jaso dira:

- **Ikerketa-sare egonkorak sortzea edota sendotzea** xede duten aukerak, masa kritiko handiagoa lortuz, irismen handiagoko proiektuak sortzeko eta garrantzi handiagoko ekimen europarretara batera aurkeztu ahal izateko.
- **kitania Berria lurraldea handitzeak, instituzio berriak gehitu dizkio sareari, aztertu beharreko aukera berriak zabalduz**.
- **Gradu bikoitzak ezartzeko aukera**.
- **Ikasleentzako “praktika” sare bat ezartzea, eskualdeko enpresetan**.
- Honako hauek dira lankidetzarako potentziala duten **ezagutza-arlo edo jakintza-eremu espezifikokoak**:
 - **Osasungintza** (Medikuntza pertsonalizatua eta Big Data alorrak bereziki aipatu dira).
 - **Jasangarritasuna** (baliabideen erabileraren efizientzia eta efizientzia energetikoa; Smart urban coastal sustainability).
 - **Garapenerako lankidetzak**, eskualde-mailan zein hirugarren herrialdeetan.
 - **Agronomia**.
 - **Bioteknologia**.
 - **Datuen zientzia**.
 - **Ekonomia urdina**.
 - **Hizkuntza eta euskal kultura**.
- **Mugikortasuna barne hartzen duten titulazio bikoitzak** garatzeko aukera, batez ere master mailan, Euroeskualdeko lurraldeko prestakuntza-eskaerei erantzuteko espezializazioa eskaintzeko konpromisoa betetzen dutenak.
- Era berean, Euroeskualdeko erakunde eta ikerketa-zentroetan **mugikortasunerako edota ikerketa-egonaldiak egiteko aukera ematen duten doktorego-tutorekide programa** bat martxan jartzea helburu izan daiteke.
- Horrez gain, IN eta OUT ikasleen mugikortasuna areagotzea, Euroeskualdeko hizkuntzak menderatzen dituzten ikasleak behar dituzten **enpresetan praktikak egiteko praktika-programa barne**.
- **Irakasleentzako baterako prestakuntza-eskaintza garatzeko aukerak**, non kolektibo horrek, Euroeskualdeko beste erakundeetako kideak ezagutzeko aukera izango duen, besteak beste.
- **Euroeskualdean lurraldeko eragileekin jada martxan dauden lankidetzak sendotzeko eta garatzeko** aukera, eta, bereziki, **mugaz gaindiko eremuan estrategia berri baterako aukera**.
- **Unibertsitateak** dagoeneko batera parte hartzen duten (Europako Unibertsitateetako proiektuetan, bereziki) edota **lurraldeko eragileek** antolaturiko (unibertsitateen Euroeskualdeko estrategia, Euskal Hirigune Elkargoko mugaz gaindiko goi-mailako hezkuntzako eta ikerketako estrategia) **hainbat jardueretako sinergiak elikatu eta ahalbidetzeko** aukera.
- Ildo horretan, lehen **aipatutako lankidetzak dinamika** lerrokatu edo osagarrien **artikulazioa edo konbergentzia** hobetzeko eta garatzeko aukerak.

2.3.6 Azken iradokizunak

- Unibertsitate, ikastetxe eta abarren beharrak aurkeztu, ezagutu eta bateratzeko **jardunaldiak, ekitaldiak eta biltzarrak egitea**.
- **Euroeskualdea fisikoki ikusgarriago bihurtzea**, lurralde edo unibertsitateetan egoitzak jarrita, batez ere aipatutako Akitania Berria eskualdeko distantzia-efektua arintzeko.
- **Mugaz gaindiko unibertsitate-praktiketako (ordaindutako praktiketarako) beken funts** bat egiteko aukera, bereziki Frantziatik Euskadira edo Nafarroara joateko.
- Epe laburrean emaitzak emango dituzten proiektuez gain, unibertsitatearen eta oinarritzko ikerketaren munduan **bikaintasun-ekimenak bultzatzea**, alde guztiak elkarren osagarri eta aberasgarri izango diren ekosistema bat sortze aldera.

Kooperazioa



- Aliantza berriak sortu
- Indartu lankidetzak akademikoa
- ikerketa egonkorretarako sareak sustatu
- Europar Unibertsitatearen esparruan aukerak bilatu

Formakuntza



- Ikasleen, ikertzaileen eta irakasleen mugikortasuna indartu
- Gradu bikoitzak, tesia baterako zuzendaritzapean
- Euroeskualdeko Diploma propioak
- Praktika sarea Euroeskualdeko enpresetan

Proiektu partekatutak



- Jardunaldi partekatutak egin
- Iraunkortasuna, baliabideen erabilera eraginkorra
- Agronomia
- RIS3en Aukera lerrokatuta

Indartu beharreko gaiak



- Euskera
- Iraunkortasuna, baliabideen erabilera eraginkorra
- Agronomia
- RIS3en Aukera lerrokatuta
- Osasuna Medikuntza pertsonalizatua eta Big Data
- Garapen iraunkorra kostaldeko eremuan
- Bioteknologia
- Datuen zientzia

Taula 2.4
Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko aliantza eta unibertsitate lankidetzako proiektuen eskema

	Euskal Herriko Unibertsitatea	Deustuko Unibertsitatea	Mondragón Unibertsitatea	Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Nafarroako Unibertsitatea	Bordeleko Unibertsitatea	Bordele-Montaigne Unibertsitatea	Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatea	Limogeseko Unibertsitatea	Arroxelako Unibertsitatea	Poitierseko Unibertsitatea	Politika Zientzien Institutua	INP • Institutu Nazional Politeknikoa	Nekazaritza Zientzien Goi Eskola Nazionala	EIGSI • Industriako Sistemen Ingenieritzako Eskola	ENSAM • Arte eta Lanbideen Goi Eskola Nazionala	ESTIA • Teknologia Industrial Aplikatuen Goi-Mailako Eskola	ENSAP • Arkitektura eta Paisaien Goi Eskola Nazionala	Kedge Business School	EBABX • Arte Irakaskuntzako Goi-Mailako Eskola	ENSCI • Zeramika Industrialeko Goi Eskola Nazionala	IISAE-ENSMA • Mekanika eta Aeroteknikako Goi Eskola Nazionala	3iL • Informatiko Ingeniaritza Institutua	Excelia Group
Euskal Herriko Unibertsitatea																								
Deustuko Unibertsitatea																								
Mondragón Unibertsitatea																								
Nafarroako Unibertsitate Publikoa																								
Nafarroako Unibertsitatea																								
Bordeleko Unibertsitatea																								
Bordele-Montaigne Unibertsitatea																								
Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatea																								
Limogeseko Unibertsitatea																								
Arroxelako Unibertsitatea																								
Poitierseko Unibertsitatea																								
Politika Zientzien Institutua																								
INP • Institutu Nazional Politeknikoa																								
Nekazaritza Zientzien Goi Eskola Nazionala																								
EIGSI • Industriako Sistemen Ingenieritzako Eskola																								
ENSAM • Arte eta Lanbideen Goi Eskola Nazionala																								
ESTIA • Teknologia Industrial Aplikatuen Goi-Mailako Eskola																								
ENSAP • Arkitektura eta Paisaien Goi Eskola Nazionala																								
Kedge Business School																								
EBABX • Arte Irakaskuntzako Goi-Mailako Eskola																								
ENSCI • Zeramika Industrialeko Goi Eskola Nazionala																								
IISAE-ENSMA • Mekanika eta Aeroteknikako Goi Eskola Nazionala																								
3iL • Informatiko Ingeniaritza Institutua																								
Excelia Group																								

Iturria: Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko unibertsitate eta goi-mailako irakaskuntza zentroetatik jasotako informazioarekin egina

3

Unibertsitate Lankidetzarako Jardunbide Egokien Benchmarkinga

3.1 Sarrera

Mugaz gaindiko unibertsitate-lankidetza ohikoa izan da Europan, urteetan zehar. Gradu bikoitzak unibertsitate askoren hezkuntza-eskaintzaren barruan daude, duela hainbat urtetik hona. Europar Batasuneko finantza-laguntzei, Bolognako prozesuari eta nazio barruko zein eskualdeko gobernuen babesari esker, hainbat ekimen garatu ahal izan dira, mugaz gaindiko unibertsitate-lankidetzaren esparruan hazten eta garatzen joan direnak.

Aldaketa zein etorkizun berrietara zabaltzeko apustua nagusi diren testuinguru honetan, elkarlanerako moduak eraldatzen lagundu izan da (eta laguntzen da). Elkarlan horietako batzuk hasieran irakasle eta ikertzaileen gaitasun eta gogoak sortutako lankidetza «informalak» izan baziren ere, beste kasu batzuetan, proiektuak lortzeko talde adituak sortu dira, horietako asko Europako funtsek finantzatuta. Hala ere, lankidetzan aurrera egiteko eta izaera formalagoa eta iraunkorragoa emateko borondateak nazioko eta nazioz gaindiko unibertsitateen arteko lankidetzarako esparru-akordioak ugaritzea eragin du, eta unibertsitate-jarduerak askoz dimentsio handiagoa hartu du.

Zalantzarik gabe, ikasleen mugikortasun gero eta handiagoan, irakaskuntza eta ikerketa-jardueraren nazioartekotzean, lankidetza-proiektuen garapenean, baliabideen mutualizazioan edo prestakuntza eta ikerketa-gune berrien sorreran diharduten gero eta eragile gehiagok ulertzen dute beren jardueren nazioartekotzea etorkizunerako gako estrategikotzat. Nabarmentzekoak dira hiru nazioen arteko EUCOR campusaren moduko ekimenak, egitura juridiko bat (LLET) sortzen aitzindari izan direnak, eta nazioarteko bokazioa bizi mantentzen dutenak, 5 bazkideetatik 4 EPICUR (Europako unibertsitatea) sarean sartu berri direla kontuan izanik.

Beraz, badirudi unibertsitateak lankidetza proiektu berriak garatzeko bidean daudela, eta gero eta zeregin garrantzitsuagoa dutela, ezagutzaren transmisioan ez ezik, Europaren integrazioa, garapen ekonomikoa eta kanporako proiektzioa bilatzen ere.

3.2 Ondorioak

Ondorio nagusi gisa eta bechmarkingari dagokionez, jarraian, lankidetzaren zenbait balazta agertzen dira, oro har jasoak izan arren, unibertsitateen egoerara estrapolatu daitezkeenak.

Identifikatutako lankidetzaren oztopo nagusiak:

- Politika komunen garapen eskasa eskualdeen ekimenei laguntzeko. Adierazpen politiko ugari egin diren arren, praktikan, gutxi dira agintari nazionalak eskualdeari laguntzeko neurri bateratuak trukatu eta erabaki dituzten kasuak.
- Testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoak mugaz gaindiko ekimenen arrakasta baldintzatzen du, neurri handi batean. Eta baita, lankidetzaren historia komuna partekatzeak, industria-ibilbide bera izateak edota hizkuntza bera hitz egiteak ere.
- Mugaz gaindiko lankidetzaren eragozten duten araudi, fiskalitate eta administrazio-oztopoak. Egituretan bat ez etortzeak eta traba administratiboak izateak geldiarazi egiten dute zenbait ekimenen gogoia (desadostasunak zerga, zein gizarte-segurantzak eta pentsio-erregelamenduetan; arau eta legedien gardentasun falta; traba administratiboak; etab.).
- Eragile berriei parte hartzeko aukera ematea. Parte hartzaileen kopurua handitzea, ekosistemako eragile guztiak bilduko dituzten sareak sortzeko; helize hirukoitzeko plataformak garatzea, hau da, sektore pribatuak, sektore publikoak eta unibertsitateek parte hartzen duten plataformak biltzea edo konplexuegia izan daiteke zenbait eragilerentzat.
- Iparralde-hegoalde-ekialde-mendebalde lankidetzatik eskuratutako inertiak. Historia komunak, lurralde-jarraitutasunak (azpiegituren edo garraio publikoaren eskuragarritasuna), estereotipoek eta abarrek lankidetzaren bideratzen lagundu dute.
- Europako Lurralde Lankidetzaren (Interreg) finantzaketak-iturriekiko mendekotasun handia, epe luzera oztopo bihurtu daitezke baterako proiektuak garatzeko.
- Disimetriak lankidetzan. Inplikaturako eragile guztien inplikazioa eta elkarrekikotasuna behar da. Desorekek proiektuak arriskuan jartzen duten liskarrak sor ditzakete, eta solaskide egokienak ez izendatzeak ere bai.
- Egituraketarik, ibilbide-orririk eta helburu errealistarik eza: lankidetzaren batzuen informaltasunak, ikuspegi estrategikorik ezak edota epe luzerako finantzaketarik ezak harreman emankorrak eragozten dituzte.
- Hizkuntzen ezagutza urria (ingelesa besterik ez) eta mugaz gaindiko kulturarik eza. Bi (edo hiru) kultura eta horiei dagozkien hizkuntzak integratzeko bokazioa disolbatu egiten da konponbide errazagoen aurrean, ingelesa komunikazio-hizkuntzat hartuta.

Gomendio nagusiak:

- Eskualde-mailan, unibertsitateek ez ezik, tokiko, eskualdeetako eta estatuetako gobernuak ere inplikazio handia izan behar dute; baterako proiektuak sortzea, abian jartzea eta finantzatzea bultzatu behar da.
- Nortasuna. Irudia kanporantz proiektatzeko barne-nortasuna eta kanpoko marka garatzeak, eskualdea bere mugetatik haratago kokatzeak, mugaz gaindiko ekimenetan parte hartzen duten eragileen gogoia eta inplikazioa bultzatzen du.
- Estrategiek osagarriak izan behar dute nazio, eskualde edo tokiko mailan garatzen direnekin (sistema zentralizatuak versus eskualde-sistemak), eta bat etorri behar dute bere sareak zein gainerako sareek planteatutako helburuekin.
- Unibertsitateek eta ikerketa-zentroek sektore pribatuko espezializazio-eremuetara egokitu behar dute, unibertsitateen eta enpresen artean harreman sendoak sortuz.
- Mugaz gaindiko lankidetzaren proiektu bat abian jarri ondoren, integrazio eta lankidetzaren maila etengabe handitzea ezin da ziurtzat jo: beharrezkoa da jarrera proaktiboa izatea, egungo eta etorkizuneko lankidetzak bermatuko dituenak, bai eta erne egotea ere, lankidetzaren eremu berriak identifikatzeko.
- Nazioartekatzeari eta Europa mailako lankidetzarekiko (Europako unibertsitateak) gero eta interes handiagoa duen unibertsitateen munduan, Euroeskualdearen kontzeptua «ahulduta» dagoen kasuan, Euroeskualdearen eremuan lan egitearen onurak, erakargarritasuna eta bereizketa gogorarazi behar dira.
- Ekipoen kudeaketa, lidergoa eta solaskide egokiak. Lankidetzaren buru izango den giza taldea aukeratzea lankidetzaren arrakastaren funtsezko elementu gisa ezartzen da, diziplinazko taldeak eratzen baitira, lankidetzaren bagaje eta itxaropen desberdinak dituztenak.
- Ezagutzaren eta gobernantzaren gardentasuna. Jardunbide egokiak zabaltzea, zientzia-argitalpenak, kudeaketaren gardentasuna, etab.



NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITAÑA • EUSKADI • NAVARRA

18 rue Leku Eder
ZI des Joncaux
64700 Hendaye

euroregion-naen.eu



LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea
AECT Euroregion Akitania-Euskadi-Navarra
GECT Euroregion Aquitaine-Euskadi-Navarre

